

DIRU-ITURRIAK

- Lehen aipatu bezala, gure helburuetako bat diseinu zuhur bat egitea da baina noski dirua irabazi ere gure xedeetako bat ere da. Galdetuko zarete nondik ateratzen ditugun etekinak edota gure soldatak nola ordaintzen ditugun. Esate baterako aplikazioa eskuratzea ez da doainekoa izango, gutxi gorabehera urte batean ordaindu beharrezkoa izango da, hala nola hileroko 10€. Beste alde batetik, sarraila eskuratzean logikoki diru baten truke erosi behar da. Oraindik ez dugu esan baina gure produktua leku desberdinetatik eskura daiteke; online edota dendan hain zuzen ere. Online eskuratuz gero hurrengo erosketa egiterako orduan 20% deskontua izango du.

Gure produktua eskuratzeko prozesua oso azkarra eta aldi berean sinplea izango da. Gure proiektuari jarri diogun prezioa egia esanda nahiko eskuragarria da 100 € ingurukoa. Hasiera batean bezeroen ikuspuntutik garestia dela produktua eskuratzea beste batzuekin konparaturik, baina epe luze batean bezeroen iritzia aldatu egingo dela ziurtatu ahal dizuegu. Mugikorrean instalatu behar den aplikazioa denbora guztian eguneratzen dabil, egunerokotasuneko arazoei aurre egiteko.

Hasiera batean egia esan ez genuen oso argi norentzat bideratu edota nork eskura zezan baina abantailak eta desabantailak ondo aztertu ondoren konklusio batera iritsi ginen; erdi-mailako edota goi-mailako familientzat bideratu egingo genukeela.

Hasiera batean gu enpresa moduan inbertsio handiak egin beharko ditugu esate baterako materialak eskuratzeko edota hornitzaileak topatzeko. Gure ustez hasierako prozesua zailena da, kontuan izan beharreko gauzak asko baitira.

